

# Barren

ELGOIBARKO ASTETEKARIA - 2001eko uztailaren 13a/VIII. urtea/371. zkia



## Lortu dugu!



Uztailak 1 - Kilimanjaro gailurrean



Ekainak 25 - Refugiora bidean



Uztallak 2 Hotelera bidean

# J. Iustonclo, sx

## EDARI BANATZAILEAK



**RIOJA**  
 LA FUERZA DE UN NOMBRE THE STRENGTH OF A NAME  
 GLI MMU - EM MUMM091~  
 MOMMMUMMEMEMMULMO  
 mmu LEH KIERIEPEEEEE  
 undaysie ACIRE  
 REWalngi MICşega  
 M̄inim' ΔTMAPOnti cam  
 C 111E,1-11v . ® Malle  
 E WHOVBEEĒWE ■ E  
 WFFFIWO-NE MEC 0111  
 Ageu-1112: DEOW  
 maramfis UMoOU®  
 110111 MCM EmEM-2210  
 wuRMEMUCEscs  
 EloWEGiugUEEEINECE  
 ME REE EmitERE E  
 EEHREHEE '01cam  
 DWILAI ma WEY, Eam  
 HE HEIE MEGI EE

CONSEJO REGULADOR DE LA DENOMINACIÓN DE ORIGEN CALIFICADA RIOJA

JATORRIZKO DENOMINAZIOKO ARDO KAXA 3.600 pta.tik  
 KRIANTZAKO ARDO KAXA 7.200 walw  
 ERRETSERBAKO ARDO KAXA 12.000 pta.tik

- Txakolina
- Likoreak
- Inportazioko garagardea
- Kontserbak
- Sagardoa

### Phezio ezik itolet!

San Roke, 32-34 (Instituto parean) Tel. 943 740 992



## Anonimoak dira?

Jon bilbotarra da eta preso politikoa da. Espainiako legearen arabera etxetik hurbilen duen kartzelan egon beharko luke, eta aste honetan epaileak Lugoko espetxera bidali du. Bere amak Basauriko kartzelako atearen aurrean gau osoa eman zuen bere semea une txiki batez ikusi nahiez, ertzainek aurpegira trufa eta iseka egiten zioten bitartean. Joan zen astean Mexikon errefuxiatu bat atxilotu eta Soto del Realeko (Madril) kartzelan espetxeratu zuten. Neskalaguna Mexikotik etorri zen bisita egitera, eta Sotora iritsi zenean, mutila kartzelaz aldatu zutela esan eta bisita gabe utzi zituzten biak. Elgoibarren hiru laurdenak beteak izanik, kalean behar luketen presoak daude. Euskal Herriko beste hainbatek bezala, 15 urte baino gehiago daramatzate barruan, eta oraindik, epaile eta politikariek nahi duten arte, senide eta lagunak astero milaka kilometro egin beharko dituzte minutu eskas batzutan herriaren berotasuna eta lagunaren maitasuna haiei hurbiltzeko.

Hau errealitate gordinaren adibide himirio bat besterik ez da. Minuturo, orduro, egunero, astero, hilero, Euskal Herriko milaka familiek pairatzen dutena. Zuen lagunak dira, zuen auzokoak, lagunaren senideak... Haien eskubideen etengabeko urraketak ez dira egunkarietako eta albistegietako atarikoak.

Ez duzue herritar eta familia hauen egoeraren aurrean sutu behar? Edo akaso masa hedabideek diotenak ezarCzen du bakarrik zuen pentsamolde eta jokabideen ildoak?

Lorea Perez de Albeniz



## Gauza bakoitzaren prezioa

Pertsonak baliorik ez dugula esan ohi da eta arimak are gutxiago. Baina errealitateak guztiz kontrakoa erakusten digu eta norbaitengatik ordaintzeko prest daudenak ere badaude.

Gauza hauek harrokeriaz, handinahiez eta protagonismoa edukitzeagatik egiten direnean, osasunarentzat kaltegarriak dira. Gaurko merkatua legerik onartzen ez duen ring batean bihurtu da.

Gure inguruko pertsonak, bai tailerretan, udaletxeetan, dendetan, tabemetan eta abar... lanean sartzen dituzten orduen ordainez emandakoarekin konpondu behar dira hilero sortzen diren gastu guztiei aurre egiterakoan. Beste batzuk berriz, izerdi gutxi atera arren, milioikadak kobratzen dituzte eta hori ikusteak min egiten du.

Gero eta gehiago nahi dugu, gero eta erosoago bizitzeko nahia da. Azkenean, nahia bizioa bihurtzen da. Zirkulua ez da inoiz isten.

(Nork daki, agian lerro hauek idazteagatik ordainduko balidate, ez nuke ezetzik esango).

Jokin Martinez

rn  
O  
notiz.

Kexak .....	
motz motz .....	10
gehigarria .....	13
kiRolAk .....	20
aGenda .....	24

## Jasone Osoro idazle elgoibartarrak Zilarrezko Euskadi Saria jaso du "Korapiloak" liburuarengatik

Donostiako Liburu Azokan gehien saldu den euskarazko liburua izan da

Jan den apirilaren 23an, Liburuaren Egunean, Donostiako Liburu Azokan gehien saldu ziren liburuen egileei Zilarrezko Euskadi Saria eman diete. Euskarazkoaren saria Jasone Osoro idazle elgoibartarrak jaso du. Sariak Donostiako XXVI. Liburu eta Disko azokaren barruan banatu ziren uztailaren 2an. "Sari bat jasotzeak beti egiten du ilusioa, batez ere irakurleak ematen duena baldin bada. Gainera, liburugintza jarraitzeko motibazioa ere ematen du", esan digu Jasone Osorok. Saltzaileei, irakurleei eta portadako irudia atera zuen argazkilaritari eman zizkion eskerrak Jasonek sari banaketan. "Saltzaileak liburu azokaren antolatzaile izateaz gain, liburugintzako parte inportantea dira. Zeresanik ez irakurleak, liburu bat bizirik egoteko idazlea ez ezik irakurleak ere beharrezkoak dira. Liburu bat



aukeratzeko orduan portadak garrantzi handia du. Beraz, argazkilaria eta diseinatzailearen lana aipagarriak dira. Eskerrak ematen hasita, beste asko ere baditut eskertzeko, baina denak ezin ditzaket aipatu". Jakin dugu orain artean liburu saltzaileen lehendakari izan denak, Jose Manuel Vilasek, ez zuela Jasone Osoro ezagutu sari banaketaren egunera arte. "Harrigarria da horrelako pertsona batek interes apur bat ere ez azaltzea. Liburuko argazkiari begiratzea besterik ez zeukan zein naizen jakiteko. Euskaraz ez jakin arren, lotsagarria da mundu horretan dabilen batek euskal literaturan ari garen jendea ez ezagutzea", esan digu Jasone Osorok.

*Besteak beste, liburu saltzaileak eta irakurleak eskertu ditu Jasonek.*

### Danobatek eta IMHK elkarlanerako hitzarmena sinatu dute

Danobat Taldeak eta Makina-Erremintaren Institutuale (IMH) orain artean mantendu duten elkarlana arautu eta sakontzeko hitzarmena sinatu dute. Honen bitartez, inguruko enpresenganako harreman egonkorragoa lortzea da IMHren helburua. Danobatena, berriz, langileen prestakuntza sendotzea da. Danobat Taldeak, Makina Erremintaren Institutua eta ondoren, Makina Erremintaren Museoa martxan jartzen lagundu zuen. Egun bi erakunde hauen patronatuetan hartzen du parte beraien estrategia eta garapenean biziki lan eginez.

### Madrilgo atentatuaren aurka protestatzeko jende ugari kontzentratu zen Plaza Handian asteazkenean



ETAk Madrilen jarritako bomba-autoaren leherketan Luis Ortiz, 33 urteko polizia hil zen joan den asteartean. Atentatua gaitzesteko kontzentrazioak deitu zituen Eusko Jauraritzak. Deialdiari erantzunez, jende ugari bildu zen udaletxe parean eguerdiko hamabietan, tartean baita hainbat zinegotzi ere. Ordu laurdenez isilean egon ostean, txaloka amaitu zuten ekintza terroristaren aurka protestatzeko egindako elkarretaratzea.

## Itsaso Lopez eta Eneritz Diez Euskadiko Soinu Zaharrak danUa txapelketako finalean izan dira 7 eta 11 urte hitartekoan kategorian

Inazio Bereziartua Musika Eskolako 4 dantzarik Gipuzkoako Euskal Dantzarien biltzarrak antolatutako Euskadiko Soinu Zaharrak dantza txapelketan hartu dute parte 7 eta 11 urte artekoen mailan. Mainer Gomez, Ilenia Ibarluzea, Itsaso Lopez eta Eneritz Diez aritu dira, eta azken biak baita finalera iritsi ere. Partehartzaileen maila altua ikusita txalotzekoa da lau neskek txapelketan egin duten ahalegina.



## Gurutze Gorriak dirulaguntza eskatu die herritarrei ambulanzia herria erosteko

Orain dela 12 urte hasi zen lanean Elgoibarren Gurutze Gorria, eta azken urtean bere ambulanzia areki n 3.000 herritarren ardura hartu du. Baina **zortzi urteko** zerbitzuaren ostean, legeari kasu eginez, bertan behera utzi behar dute ambulanzia eta ibilgailu berri bat erosi. Hori dela-eta elgoibartarren laguntza ezinbestekoa zaie, eta **Ierro hauen bidez** dirulaguntza eskatu nahi dute. Guztira, 8 milioi pezetako kostua dauka ambulantziak. Erosteko dirua eman nahi duenak BBVA-ko honako kontu zenbakian egin dezake diru-sarrera: 0182.0317.91.001150993.3.



## Euria zela-eta elizako arkupeetan egin zen San Fermin Txiki Eguneko entzierroa

Uztailaren 6an, ostiralean, eguerdiko 12:00etako txupinazoarekin hasi zituzten San Ferminak Irutietan. Nafarroako hiriburuko zatitxo bat Elgoibarrera ekarri nahi izan zuten Atxutxiamaiak Aisaldi Taldekoek, eta orduan piska bat aurreratuta San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten. Goizean San Ferminetako pregoia irakurri, eta santuari abestu ostean, euria zela-eta elizako arkupeetan egin zuten entzierroa. Ondoren, indarrak berritzeko, txorizo pintxoak jan zituzten haurrek eta inguratu ziren ikusleek.



## San Lazaro Egoitzako 40 lagunek irteera egin zuten Zumaiara eta Zestoara

Urtero egin ohi duten moduan, aurten ere txangoa antolatu dute San Lazaro egoitzakoek. Edadetuak eta laguntzaileak, guztira 40 lagun, Zumaiako portuan izan ziren uztailaren 5ean, arratsaldean, eta ondoren, Zestoako bainuetxean egin zuten merienda. San Lazaro Egoitzakoek esan digutenez, arratsalde pasa joan eta oso ongi igaro zuten. Gainera, "Nagusilan" taldekoei eta gainontzeko adiskide, familiako eta laguntzaileei eskerrak eman nahi dizkiete eskainitako laguntzarengatik. Eguna txisteak kontatzen eta kantuan, giro alaian, amaitu zuten.

ETAren hilketa bat dagoen bakoitzean, Plaza Handian kontr.etrazioak egiten dira atentatuen aurka protestalzeko

## BA AL DAIMAZU PLAZAHO KONTZENTRAZIOETARA JOATEHO OHITURARIK?



### NEKANE SAEZ

28 urte, ileapaintzailea

Batzutan egon naiz. Jendia hiltzia ez jata bidezkoa iruditzen eta protestatzera juten naiz kontzentraziuetara.

### KRISTOBAL AGIRRE

31 urte, espezialista

Ni ez naiz juten. Holakuekin ez da ezer ere lortzen, beste gauza batzuk in biharko liakela pentsatzen dot.



### YOLANDA ALVAREZ

30 urte, etxekoandrea

Lana dela-eta ezin izaten naiz joan, baina ahal banu, joango nintzateke. Hala ere, ez dut uste horrelako ekintzekin ezer aurreratzen denik.

### ROBERTO KEREXETA

34 urte, liburuzaina

Ez naiz juten, baina kontra ere ez nago. Kontzentrazio puntualen batera jun izan naiz, baina ohitxurarikan ez dakat.



### JUAN MARIN

72 urte, jubilatua

Ez naiz sekula joan. Nire burua engainatuko nuke joango banintz. Manifestazioek ez dute ezertarako balio, izatekotan, txarrerako dira.

### MARIA ARETXAGA

63 urte, etxekoandrea

Normalian ez naiz juten, baina juango nintzake. Hemen bakia danok nahi dogu. Hala ere, ez dot uste laguntzen dabanik, resultaurik behintzat ez dogu ikusten,



otr3  
2

4 ... )

igle\*

### MEZA

2001eko ekainaren 16an, 47 urte zituela hil zen  
**PEDRO RUIZ CAMINO**ren oroimenez  
MEZA izango da Parrokian larunbatean, hilak 14,  
arratsaldeko 19:00etan. Joango zaretenoi eskerrak  
fandliaren eta lagunen partez.

21.11.01  
"01111"  
'4, 3-»

V.11.11.01.19

El P

nro  
n

i  
c.f.f.11

# Gaztia

## BARREN

NAIZ

ABENTURA  
+ ARRISKUA  
KIROLA

?


## MS 2000: DREAMS AND EXPRESSIONS

MICHAEL SCHENKER

**R**ock munduan Alernaniak eman duen musikaririk ezalunenetakozt dugu Miehael Schenker. Bere anaia Rudolf-ekin batera Scorpions taldea sortu zuen, baina bi disko bakarrik grabatu zituen Klaus Mein eta konpainiarekin. Bere bizitzako taldea UFO izan da, bertan egin haitzen ezaguna. Gerora Miehael Sehenker Group (MSG) sortu zitiell eta orain bere izen propioarekin soilik aurkezten zaigu. 'MS 2000: Drearns and Expressions' disko instrumentala da. Bertan gitarrajole alemaniarrak rock eta heavy-rock estiloak jon'atzen ditu. Sehenker-ek Barry Sparks baxuan eta Shane Gaalaas haterian ditu lagun. Yngwie Maimsteen edo Vinnie Moore hezalako eitarrajoieekin aritutako musikariak.

**I**Hoszeita bat ahestiz osatuta dago CDa. Hala ere, 'abesti' hitza baino 'korte.' hitza erabiltzea komeniko litzateke, ia korte gehienak ez baitira bi minutura beltzen, hatzuk ezta minutura ere. Gitarra riff rockeroetan oinarritzen da Schenker eta korte gehienak lotuta doaz ia isilunerik gabe. Estiloak Joe Satrianiren 'Surfing With The Alien' dakarkigu gogora. Gustu handiz egindako lana dugu 'MS 2000: Dreams And Expressions'. Rock-a, musika instrumentala eta gitarra gustuko duen edonorentzat aproposa. Hortaz, jar itzazue zuen amets eta espresibak martxan.

Jon Gurrutxaga



## IBAN URIZAR "Ez gEr EgitEn saririk



Zer da Bilbo Rock saria?

Musika sariak dira. Orain arte estatu espainiarrean bakarrik zegoen baina orain Europa osora zabaldu dute. Talde desberdinak, diskoa eduki edo ez, aurkez daitezke. Bakoitzak bere maketa aurkezten du eta beraiek aukeraketa bat egiten dute, gero kontzertuak montatzen dituzte eta taldeek jendearen aurrean jotzen dute beraiek ipinitako egunetan. Taldeak entzun eta gero, aukeraketa egiten dute.

Nolatan aurkeztu zarete lehiaketa honetara?

Oso denbora gutxi daramat "Ca-Teatro" taldean jotzen. Beraiek maketa bidali zuten eta klasifikatu egin ziren. Tronpeta batekin probatzea nahi zuten. Entsaiazteko gelditu ginen eta ondo atera zen.

Talde euskaldun asko aurkeztu al zarete?

Ez dakit guztira zenbat auzetuko ginen baina lehen bost postuetan, saria zeukatzenetan, bi edo hiru, ez dakit ziur, euskaldunak ginen, eta hori garrantzitsua dela iruditzen zait. Ona da talde eus-

kaldunak nabarmentzea. Saria suediatar talde batek eraman zuen.

**"Cafl Teatro" lau lagunek osatzen dugu. Musika instrumentala da gurea"**

Hau izan al da aurkeztu zaren lehen lehiaketa?

Bai, eta ez genuen espero guk egiten dugun musika motarekin saririk irabaztea. Arraroa egin zitzaidan talde instrumental batek horrelako lehiaketa batean saria jasotzea. Normalean, horrelako musika ez da saritua izaten

Nolako musika egiten duzue?

Oso musika bisuala egiten dugu, ahotsik gabekoa eta lasaia. Bi gitarra, bajoa eta tronpetak osatzen dugu taldea.

Sariak zuen musika munduko ibilbidean ondorioak ekarriko al ditu?

Ez dut uste atepak zabalduko dizkigunik. Poltsikorako izan da





# Kirolak Eta arriskuak

**Oporrak deskantsurako aprobe txatu ohi ditu askok, baina badira geldirik ezin egon eta atsedEnaldirik gabeko oporrak nahiago dituztEnak. Gero eta gehiago dira naturarekin bat Eginez jai egunetarako kirola eta abentura aukeratzen dituztenak. Modan daude abenturako kirolak eta eskaintza gero eta zabalagoa**

**da. JEndea rafting-a, kanoi jaitsiera, Eskalada, hidrospeed-a, puenting-a Edo parapentea bezalako kirolak egitera ausartzen da. Guk horiEtako batzuk hautatu ditugu, udan Egiteko Egokiak izan daitezkeenak. Jakin badakigu badirela abentura. arriskua eta kirola konbinatzen dituzten bestE hainbat ekintza ere.**

## **KANOI JAITSIERA**

Kanoiak jaisteko garai aproposena udaberriko elurteen urtzeak pasa eta ur korronteek indarra galdu dutenean izaten da. rbaia- ren zoko ezkuak ezagutzeko aukera ematen du kirol honek, baita ur azpiko abiada sentitzekoa ere.



## **RAFTING-A**

Ez du gaitasun berezirik eskatzen kirol honek, eta txalupaz gain, beste materiala ere antolatzaileek uzten dute.

## **HIDROSPEED-A**

Abiadura da abentura honen ezaugarri nagusia. Trineo antzeko batekin ibaiaren korrontea aprobe txatuz joatea da kontua. Baina abiada horrek eragin ditzakeen ezuste-koak sahiesteko neoprenozko trajea ohikoa baino lodiagoa izaten da eta belaunak zein ukalondoak babestuta eraman behar dira.

## **GLOBOA, PARAPENTEA EDO DELTA HEGALDIA**

"Ibilgailu" haue- tako bat aukera dezakete **Iurra** goiko aldetik be- giratzea gustuko dutenek. Duela urte asko hasi zen jendea delta he- galdiak egiten, baina azkenal- dian gero eta gehiago omen di- ra parapentearen jarraitzaileak. Izan ere, para- pentea merkea-

goa da, motxilan sartu eta haize boladen arabera mugituz askatasuna ematen du, eta gainera deltaren arriskua handi- ga da.

## **PUENTING-A ETA GOMING-A**

Soka bati edo goma bati lotuta zubi batetik edo bereziki horretarako prestatutako grua batetik salto egitea da. Sokak ondo egitea eta korapiloak egiten jakitea da garrantzitsuena. Edonork egin dezake, baina emozioa handiegia denez, bihotzean arazoren bat izanez gero, kontuz ibili behar da.



# bat Egitean duten...

**"Arriskuak bere xarma dauka, beti ere kontrolpean izanez gero"**

Joseba Elustondo

Joseba Elustondok beti izan du gustuko kirola praktikatzea, eta bere burua superatzeko afanean eskaladarekin hasi zen. Piskanaka telebistan ikusiz, gaiaren inguruko aldizkarietara begira, eta noski, horretan gora eginez, eskaladara engantxatu dela esan digu.

## ESKALADA

Eskalada mota ezberdinak daude:

**Eskalada libre:** gizakiak bere indarrez horman gora egitean datza. Honen barruan daude eskalada deportiboa, rokodromoetan edo eskalada eskoletan egiten dena. Aseguruak ipinita egon arren, zailtasunak bilatzen saiatzen dira. Mendiko eskaladan, bidea irekita egoten bada ere aseguruak maiz norberak jarri behar ditu.

**Eskalada artifiziala:** asegurutik asegurura estribo bidez igotzen da eta ez dago haitzarekin kontaktu zuzenik.



## Kirol arriskutsua al da Eskalada?

Arriskuak bere xarma dauka, beti ere kontrolpean izanez gero. Eskaladan norberak erabakitzen du zenbateraino arriskatu nahi daban.

## Zer behar du Eskalatzailerik on batek?

Kirol hori gustuko izatia. Gainontzekuak konplementuak dia: Burua hotza eukitzia, indarra, agilidadia... Gero, esperientzia piskanaka hartzen juten da.

## BESTE kirol arriskutsurik probatu al duzu inoiz?

Puentig-a, espeleologia... in ditzut. Dana dala, neri beti gustau izan jata kirola itxia eta arriskutsuak ez dian deportiak ere praktikatzen ditzut: bizikleta, korrika, pelotia... Mendixan ibiltziak ere pila bat betetzen nau.

## Udako oporrak gertu dirEn honetan. Eskaladak izango al du IEkurik oporretako planetan?

Pirineuan travesia bat itxeko asmua dakagu. 15 edo 20 egunetan Benasque inguruan hasi eta Belaguaraino-edo. Baina argi dakagu oporretara guazela eta arriskuak ahalik eta tokirik gutxien beteko du gure planetan.



*Cda etorri da eta San meak ere gainean ditugu. Jaieran Gazteta-era harbildu tako barran (vitt ta-o.s.nelak la-gundaz parte bar ezazu! Jendea bekar dugu.*

## Hirurogei lagun bildu ziren Atxolin En parke Eolikoaren aurka protEstatzEko akanpada



zkenean, nahiz eta egualdiak gehiegi lagundu ez, lortu zen ekainaren 30erako eta uztailaren lerako antolatu zuten Karakateko parke eolikoaren kontrako akanpada egitea. Giro jatorra

izan zuten Atxolinen magalean bildu ziren hirurogei lagunek. Elgoibarko Plaza Handitik hila-ren 30ean, hiru eta erdiak alde-ra irten ziren eta patxadaz ekin zioten igoerari. Iritsi eta gero, kanpin dendak montatu, indar-

berritzeko zerbait jan eta jai giroa nagusitu zen gauean berandura arte. Hurrengo egunean, Karakateko antenan salda eta txorizoa hartu ostean, kanpalekua jaso eta mendia beste bat arte agurtu zuten.

## Gazte Asanbladakoek Abiadura Handiko Trenaren aurka protEstatzEko Donostian Egindako manifestaldian hartu zuten parte



Geazte Asanbladako 15 lagunek kaineren 16an Donostian egindako Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestaldian hartu zuten parte. Bertan hainbat herrietako ordezkariak bildu ziren eta guztiak lema bakarra zeramaten "AHT-a gelditu!". Asanbladakoek diotenez "hau ez da orain artean ezagutzen dugun trenaren irudi merke, garbi, azkar eta heniak elkar lotzen dituen zerbitzua. Alderantziz, basoz, zelaiz, baserriz eta mendiz osaturiko 12.000.000 m<sup>2</sup> lur desagertaraziko

dira. Gure poltsikoetatik irtengo da dirua eta etekin pribatua izango du. 600.000 milioiko proiektuaz ari gara. Eta hau guztia, hiru hiriburuak bakarrik lotzen dituen distantzia jauntxo gutxi batzuek 10 minutu aurreztu ditzaten pentsatu da. Hau al da benetan errepideetan dugun arazoari aurre egiteko modua? Aurreztutako 10 minutu horiekin zer irabazten da?".

Gai honen inguruan, AHT-aren Aurkako Asanbladak urtero antolatzen duen kanpaldirako deia luzatu nahi du. Kanpaldia uztailaren 27tik abuztuaren 5era egingo da Durango inguruan. Informazio gehiago nahi izanez gero, hurbil zaitezte Elgoibarko Gaztetxera.

# lots@gabE

Atal honetan parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri Barrenera. Animatu! Zuen laguntza ezinbestekoa dugu!

@ San Ferminetako zezena bazina, zein harrapatuko zenuke? Nik beste jakingo bazaben...

@ Oporretan ohetik goiz ez jaikitzeke aitzakiaren bat ipini behar bazenu? Izarak pegatu zaizkit, ezin naiz ohetik atera.

@ Hondartzan zaude eta olatu handi batek harrapatu zaitu. Indarrarekin bainu jantziaren goiko alde kendu dizu. Zer egingo zenuke?

a) Normal-normal uretatik irten.  
b) Lagunei deitu toaila ekartzeko.  
d) Ezer gertatu ez balitz bezala jendea hondartzatik alde egin arte, uretan jarraitu.

@ Jaietan juergan zabiltzala gurasoekin kalean topo eginez gero... Tragua hartzera inbitaiko nitxuzke.

@ Norbaiti amodiozko deklarazio bat egiteko erahiliko zenukeen esaldi bat. Non aurkitzuko dozu zuk ni baino lore hoberik.

@ Zer ez zenioke esango sekula konfidantzazko pertsona bati?

Bera minduko daban zerbaitx. Ezjakintasuna zorientasuna da!

@ Zure bizitzako momenturik inportanteena? Lagunekin Xoxotera jua nintzanekua.

@ Dentistarena joan eta minik ez daukazun hagina atera dizu. Zer egingo zenioke? Zabaldu ahoa... klak!

@ Uretan itotzen ikusita ere, nor ez zenuke aterako? Lehengo dentista.

@ Amorrua ematen dizun gauza bat. Nire ahizpa.

@ Noizbait izan duzun okurrentzi xelehre bat. Goizeko 6etan, juergia ondoren, espagetixak jatia.


@ Nor eramango zenuke zurekin hidaia batera? Lotsagaben azaldu dian danak. Norbaitxek nirekin etorri nahi al du?

@ Askok gustatu zaizun pelikula bat. "Leyendas de pasión".

@ Bi hitz. Ez dakitx.

## LE1-11FIKETEI

### ~ ~ nn Cltu LIBURU BATeskuratu



TRAN131  
Unai Elornaga

Hilabete henetan UNA1 ELORRIAGA RIZKAITARRAK IDATZITAKO UBURUA ZOZKETATUKO DUGU. SPRAKO TRANBIA, bere bakarkako lehen liburua eskuratzeko honako galdere hauek arzen erantzun behar dituzu:

### NOMGOA DA ELORRIAGA? ZENBAT ORTE DIEJ?


Aurreko bileko saritua AMAIA da. Zorionak! Julen Gabirlaren "Iparragirre" kburua eskuratu duru.

@ Noren antza edukitzea gustatuko litzaizuke? Naizen bezelakua naiz eta kitto!

@ Lan bila zabilta eta "tio bueno" baten etxea garbitzea eskaini dizute. Zer egingo zenuke? Ordaindu gabeko beste "lantxo" batzuk ere egin daitezke, ezta?

@ Hondartzan, eskua aurpegian duzula, lo geratuko bazina eta izugarritzako esku markarekin esnatuko bazina. Zer egingo zenuke? Hondartzatik etxera markaren parian eskua ipinitxa jungo nintzake eta gero, "pasamontaiiasa" jantziko naban.

Elkarrizketa amaitzeko esaldi bat. Game over.



## Teknologia

Nekazaritza eta arrantza sektorean ikertzaile eta teknologo izateko 12 prestakuntza beka. Epea: uztailak 31.

## Musika

- Gasteizko XXV. Jazzaldia uztailaren 14tik 21era.  
- Bilbon, VI. "Bilbo Tropikala" nazioarteko musika jaialdia, uztailaren 12tik 15era bitartean.

## Auzolandegiak

- Castillo. Auzolandegiak eta ekintza ludikoak Castel de Cardonan. Epea: abuztuak 24.  
- Kantabrian erriberako basoak lebengoratzeko nazioarteko auzolandegiak, uztailaren 17tik 31ra.

## WASTA110/111

### Marketing-a

Goi mailako zuzendaritza ikastaro praktikoa profesionalentzat. Espezialitateak: Marketing-zuzendaritza eta zuzendaritza komertziala. Epea: uniak 25.

## LibIAKE

### Emakunde

Idatzizko prentsan, irratian, ikusentzunezkoetan, publizitatean, kirolean eta hezkuntzan emakumeen partaidetza bultzatzen duten erakundeei zuzendutako lehiaketak: Epea: irailak 28.

### Antzerkia.

"Villa de Mora" V. Antzerki-lehiaketa nazionala, talde afizionatuei zuzendua. Epea: uztailak 31.

## Teknikaria

Irungo Udalerako Lankidetzeta eta Parte-hartze Teknolari postu baterako oposaketa-lehiaketa. Baldintzak: Goi mailako batxilergoa, LH II edo baliokideren bat eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: uztailak 26.

## Euskotren

Autobus gidarien lan-poltsa Euskotrenen Gipuzkoa eta Bizkaiko zentruetarako. Epea: uztailak 14.

## Teknikaria

Irunen Antolamendu eta Kalitateko Teknikariaren lanpostua betetzeko lehiaketa. Ekonomia edo Enpresa Zientzietan nahiz Ingeniaritzan lizentziatuei zuzenduta. Euskarako 3. Inzuntza-eskakizuna. Epea: uztailak 21.

*\*Kontsulta ezazu astero gure lan eskaintzen bilduma. Eta nazioarteko karnetak Aterpekeide txartela...) eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera. Momentuan egingo dizugu.*

OAZIE INFORMATIO OUNEA  
Natarrea Plaza, 8 - Tel. 843 74 14 01

Ordutegia  
Osteguna eta estirala: 17:00- 20:00  
Iarrentziata: 100- 14:110

# agEnda

## 13 barixakua

### ANTZUOLA

23:00 Flitter eta Fits  
Beheko auzoko kirol pistan

22:30 Triki Ta Ke  
Herriko plazan

### ARRASATE

23:00 Arima Beltza  
Ferrerias kaleko plazatxoan

### SORALUZE

22:00 Batzuk  
Gaztelupe tabernan

### BERGARA

22:00 The Big Jamboree  
Espolioan

## 14 zapatua

### AZKOITIA

22:30 Fermin Muguruza: Dub Manifest eta Bad Sound System  
Florea Ikastetxe patioan.

### DEBA

22:00 Anestesia  
Pilotalekuan

## 15 domEkia

### ALEGI

00:00 Arakajun eta Arima Beltza  
Bulebarrean

## 16 astelehena

### ZORNOTZA

23:00 Ene Bada  
Plazan

## 18 EguaztEna

### ZORNOTZA

22:30 Mikel Urdangarin  
Plazan

## 19 EguEna

### ELGETA

20:00 Batzuk eta Autoa  
Gaztetxean



# 1111101•0111111

## BAZKALTZEKO

**Jaixetako menua,**  
abuztuak 23, 26 ,28 eta 29

- Entsalada mistoa / Rebueltoa
- Eskalopea / Txipiroiak  
Postrea + kafea (edariak aparte)  
2.000 pta.

**San Bartolome eguna,** abuztuak 24

- Entsalada berezia
- Gula rebueltoa
- Atuna / entrekota
- Etxeko postrea + kafea + edariak  
3.500 pta.

**Baserritar eguna.** abuztuak 25


- Entsalada mistoa
- Rebueltoa
- Eskalopea / Txipiroiak
- Etxeko postre + kafea + edariak  
3.000 pta.

**Txiki eguna,** abuztuak 27

- Entsalada mistoa
- Marmitakoa
- Sukalkia
- Izozkia + kafea + edariak  
2.500 pta.

## AFALTZEKO

- Entsaladak
- Bokatak
- Kazuelitak



# O

IbleY9k

"er 943 74 19 48

# L

# TXE

EIGOIBARKOIZARRA

Paco Moreno, San Pedroko 111. Zaldi Lasterketako irabazlea

## "Zaldi lasterketetarako zazpi zaldi ditur"

**a** San Pedroko III. Zaldi Lasterketa irabazi zenuen. Zer moduz moldatu zinen?

Lasterketa irabazteko asmoarekin joan nintzen, horretarako prestaturiko zaldia bainuen. "Darrियो" zaldiak Espainiako Txapelketan hartu izan du parte eta 200 km-ko proba bat ia amaitu zuen. Lesio txiki bat izan zuen, ordea, eta San Pedrokoa moduko proba motzagoetan bakarrik ateratzen dugu.

Bestalde, lasterketa oso polita izan zen baina uste baino bizkorragoa. Zaldizale gehienak bizkorregi hasi ziren eta bigarren itzulirako zaldiak nekatuta zeuden. Ni poliki hasi nintzen, 5. postuan-edo eta 3. eta 4. itzulietan topera joan nintzen. Lasterketa guztietan erabiltzen dugun taktika da.

• Zein ezaugarri ditu San Pedroko zirkuitoak?

Zirkuito gogorra da, batez ere, asfaltatutako errepidea eta zelaia batzen dituelako. Zaldiak nahastu egiten dira zoru batetik bestera aidatzean. Zaldi batzuk jaitsierekin ere arazoak izan zituzten, blokeatuta geratu baitziren eta erorketaren bat edo beste izan zen.

• Arriskutsua al da?


Berez ez, baina zirkuitua ezagutzea garrantzitsua da, azkar non joan daitekeen eta erritmoa noiz moteldu behar den jakiteko.

• Nolako iruditu zitzaizun zaldizkoen maila?

Oso ona, azkar ibiltzeko zaldi gainean joaten jakin behar baita. Zaldizko batzuk lasterketa amaitzera atera ziren eta beste batzuk irabazteko asmoarekin, baina guztiak erakutsi zuten zaldi gainean ibiltzen dakitela. Euskadin oso maila ona dago.

**R** Zein da zaldi arrazarik onena?

San Pedrokoa moduko lasterketetarako arabiar arrazako zaldia. Zaldi indartsuak, txikiak eta abiadura handiak denbora luzean mantentzeko gai dira, 20 edo 25 kilometro orduko.



Hipodromoetan ikusten diren zaldiak Ingeles arrazakoak dira eta 3 edo 4 kilometroko lasterketetarako dira egokiak.

■ Nola sartu zinen zaldien munduan?

Sansongua baserrian dugun tailerrean egiten dut lan koinatuarekin batera eta lekua genuela aprobetxatuz, 3 zaldi erosi genituen. Zaldien munduko jendea ezagutzen hasi ginen eta koinatua lasterketetan parte hartzen hasi zen. Asko gustatu zitzaigunez, zaldiak saldu eta konpetizioan ibiltzeko modukoak erosi genituen. Orain 7 zaldi ditugu.

■ Zein motatako lasterketetan hartzen duzu parte?

Espainiako Txapelketan (160 km.) parte hartu izan dut. San Pedron irabazi zuen zaldiarekin, Euskadiko hirugarren geratu nintzen. Orain 200 kilometroko lasterketa baterako zaldi bat prestatzen ari naiz. Zaldiarekin ibilaldiak egitera atera, garbitu... lan neketsua da. Mutrikun ere aurten egin dute lehen zaldi lasterketa Kalbario mendian eta irabaztea lortu genuen.

• Elgoibar zaldiz ibiltzeko leku aproposa al da?

Ez, leku lauak behar dira eta **Bergarara** edo Donostiara joan behar izaten dugu remolkea hartuta.

r

**I rIOrIUOTABERNA**

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

**FADEK**

soiariuma



Abuztuaren 4ra arte zabalik

Errosario, 35 behea • Tel: 943 74 26 92



## Pilar Arriolak Gorbeako mendi maratoia irabazi du



Erretratuan Gorbea-BARREN zendi maratoian parte hartu zuten elgoibartarrak.

**P**ilar Arriola elgoibartarra izan zen emakumerik azkarrena Gorbeako mendi maratoian, Elgoibarko izuliaren antza duen proba honek 33 kilometroko ibilbidea zuen eta Pilarrek 3 ordu eta erdi bakarrik behar izan zituen proba amaitzeko. Mendi lasterketak indarra hartzen ari dira azken aldian eta 118 partehartzaile ausartu ziren saltakako proban. Oinez egitera, berriz, 105 irten ziren. Pilar Arriolak, Iñigo Etxanizek eta Iñaki

Ulaziak proba korrika egin zuten. Mendiko probetan aritzeko Euskal Selektzioa ere sortzekotan dira. Kataluinian, adibidez, badute antzerako selektzioa. Gorbeako eta Zallako Mendi Maratoian hobekien ibiltzen diren saltakarien artetik aukeratuko dituzte Euskadiko selektzioa osatuko duten kirolariak. Hain zuzen ere, Pilarrek iaz irabazi zuen Zallako Mendi Maratoia, beraz, aukera handiak izango ditu datorren urtean Euskal selektzioa ordezkatzeko.

## Emitza onak lortu dituzte "Txusko Moto Klub" taldeko kideek Barakaldoko Enduro Txapelketan

**P**asa den asteburuan jokatu zen Barakaldoko Enduro Txapelketa Bizkaiko herri honetan. Bertan, Txusko Moto Klubeko 7 elgoibartarrek hartu zuten parte bakoitzak bere mailan.

### Posturik



aipagarrienak egin zituztenak Luis Outumuro eta Gorka Garate izan ziren. Luis bigarren izan zen beterean mailan eta Gorka hirugarren helmugaratu zen senior mailan. Roberto Alonsok, berriz, 4. postuan amaitu zuen Trofeo junior mailan. Honen atzetik Urtzi Etxabe (bosgarren) eta Aitor Aierdi (zazpigarren) sailkatu ziren.

Luis Outumurok Enduro Txapelketa Argalario mendiaren inguruan prestaturiko zirkuito ederrean jokatu zela aipatu digu, "zirkuitoa benetan paraje ederrean kokatuta zegoen.

Dena harriz beta eta motorrean ibiltzeko 6.010 aproposa. 30 km.ko ibilbideari 3 itzuli eman behar izan genizkion".

## EMA1TZAK

### Futbol 7

IV. Bailerako Txapelketa  
Evax Tanga 1 —Los Kukas 2  
Ford Lerun 2—Artetxe 3  
Ke+Da 3 Faustino VII 2  
Inkision 7— Langostino Brasileiros 1  
Mazantini 4— Kashima Brewers 2

### Futbol 7 Txapelketa

Ke+Da 3 —Faustino VII 2  
Mazantini 4— Kashima Brewers 2  
Inkision 7 — Langostino Bra. 1  
Evax Tanga 1 —Los Kukas 2  
Ford Lerun 2—Artetxe 3  
Con la bota empina 0 Paston Pila 9  
C.S.K.A. Awair 3—Lojantzi 2  
Grassoppers 3 — Antzarrak 1

### Esku Pilota

#### Sigmako Txapelketa

Iparra/Zarzuolo 19— Gerrika/Agirre 22  
Ansola/Agirrebeña 22 — Leon/Lazarobaster 11

#### infantil mailako Txapelketa

TxurrukalMugerza 18 Portu/Larratiaga 15  
Ugalde/Guemez 0 — Portu/Larrañaga 18

## AGENDA

### Futbol 7, Mintxetan

#### Zapatua, 14

11:00 Ke +Da—Mazantini  
11:00 Inkision — Los Kukas  
12:00 Artetxe Paston Pila  
12:00 C.S.K.A. Awair- Grassoppers

## IV. Futbol 7-ko Bailerako Txapelketa azken txanpan sartu da

Datorren asteburuan, hilaren 14an, Bailerako Futbol 7 Txapelketako final laurdenak jokatu dira Mintxetako futbol zelaian. Duela aste batzuk 30 talde inguruk hasi zuten txapelketan 8 talderik onenek bakarrik egin dute aurrera. Partiduak jokatu ostean, irabazleek finalurrekoak jokatu dituzte uztailearen 18an, asteazkenean, Mintxetan. Finala eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduak, berriz, uztailearen 21ean jokatu dira.

# merkatu txikia

## L4 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Donosiako enpresa batek manteni-menduroko teknikeria behar du. ERREF: 54210/2.

Aldi baterako lan konfratazto enpresa batek Debabarreneko lanpostu baterako **rebabadoera** behar du. ERREF: 54380/5.

Aldi baterako lan kontrafazio enpresa batek Deborreneko lanpostu baterako **erretroeskabadorarekin** lan egiteko pertsona bal behar du. ERREF: 53935/4.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Debagoieneko lanpostu baterako **metaigintzako FP II** egindako pertsona bat behar du. ERREF: 54371/5.

Durango inguruko enpresa baterako bideetako inlineru behar da. ERREF: 55418/2.

Donostialdeko enpresa baterako **kontuak** eramalko arduraduna behar da. ERREF: 56209/4.

Donostialdeko enpresa baterako **sukaldeko arduraduna** behar da. ERREF: 55766/0.

Hautagai moduan sanzea eskutu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langark Eigoibaren dituen zentru laguntzeile haelako batera deitu: Elgoibarko Instifulua (Alberto Iturricastillo) 943 74 80 19 edo P11-1 IEkaitz Mendizabal) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

### ESKAERA

• Senar-emazteak prest garbiketa industrialera egiteko edo lantegietako jangeletan sukaldari eta sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko. mr 669 22 35 27.

• Emakumeak bere burua eskaintzen du garbiketa lanetarako. Justa. 943 74 35 05.

• Haurrak zaintzeko eta etzeko lanak egiteko emakume euskalduna eskaintzen da, Esperieniarekin eta informekin. s **696 27 76 19**.

• **16** urieko bi neska eskaintzen dira udan lan egiteko: propaganda loantzeko, umeak zaintzeko... (Ainhoa). mr 943 74 24 67/653 74 57 93

• Neska euskalduna eskaintzen da uztailean lan egiteko. **1r 626 61 31 24**.

### ESKAINTTA

• Emakumea behar dut traletik aurrrera eixeko lanak egiteko eta hourrak zaintzeko. zr 943 74 44 **88**. (19930tik- 22:00ra).

• Neska edo emakume euskalduna behar da hourrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. zr **659 14 45 88**. (19930tik- 22:00ra).

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da Mendaron. ms 943 75 51 47. (Gauetz deitu).

• Abuztuan goizez 3 ordu lan egiteko, asteleheneetik ostiralera, sukaldaria behar da Jubilatuen Etxean. zr **943 74 05 26**.

• Mutila behar da tabernan orduka lan egiteko. Beste lankide batzuekin txandakatuz. Astegunetan, arratsaldez, eta asteburuetan ere fan egin beharko luke. **1r 943 7A 28 97**.

• Irailean arralsoldeetan 2 eta 5 urteko umeak zaintzeko emakumea behar da. s 653 73 90 65.

## Salerosketak

• 90eko bi ohe, armairu handi bat eta bi "mesilla" salgai. Ohe bat esireinatu gabe dago. Prezio onean, mr 943 74 24 57, (Egurdian edo iluntzean).

• Seat Ibiza CLX 1.5 salgai. Aire egokituarekin. 90 cv. Tr **658 71 44 36**.

• Motorra salgai. Daelin markakoa. 125 cc. Ekonomikoa. Kaskoak eta kaxa oparitzen dituf. 669 22 35 27.

\*Bigarren eskuko tefebista erosiko genuke. Prezio onean. mr 627 29 78 46. 117:00tik- 20:00ra).

• Duela hilabete erositako hamster bikotea salgai. mr 627 29 78 **46**. 117:130tik- 20:00ra).

\*uMonobolumena" safgat. Fint Turbo Diesela ,1900. 28.000 Km. str 943 20 04 17.

\* Kanadiar denda salgai. 6 plaza ditu, z. 943 74 37 09. (20:00tik-22:00ra).

## Etxebizitzak

• Etxea alokatuko nuke. Altzari eta guzti dago eta berri-berria da. Ubitar-te 3an. **943 74 24 42**.

• Etxea salgai Mendaron. 2b0 m<sup>2</sup> eta bi plazalako garajea edukitzeko aukera. 1.solairuan: egongela, bainua eta sukaldia. 2. solairuan: 5 logela eta bainua. 3.5olairuan: terraza eta behean, lorategi ederra. Tr 649 65 56 35.

• Etxea alokatzen dut Mendaron: 3 logela, komuna eta egongela. Altzariakin, sar 943 75 60 79.

• Logela hartuko nuke alokairuan, lo egiteko eta arropa garbitzeko eskubidearekin. ms. 639 70 39 82.

• Pisu alokatuko nuke Elgoibarren edo inguruetan (Eibar, Mendaro, Ermua...), mr 652 74 44 34.(Gaueren)

## Lokalak

• Komertziorako lokala salizen dut Santa Ana kafeko 2an. mr 943 74 12 83.

## Bestelakoak

• Ekainaren 24an, San Lorentzoko sarreran mobxtla urdin bat galdu nuen. Aurkitu duenak utdafetxera eraman dezala edo dei dezak tefefono honetara. -21. 943 74 30 61.

• Hilaren 9an udaletzeko arkupeetan Game boy jokoa gaidu nuen. «n. 943 74 12 47.

• Kortinak, butakak edo antzerakoak soberan izanez gero, jar zaitetz Gazietxekoekin harremanetan. Traslacloaz geu arcluratuko garo. zr 943 74 35 72.

• Erfojua galdu dut Ermuaranbide eta King-Kongeko auto6us getokiaren artean. Aurkitu duenak eraman dezala mesedez Udaltzaingora.

• Iaz, Txiki Egunean, Edu Arrillaga argazkilarari karreleak errekar erori zikaizkionean, hauek jaso eta bueltatu zizkion neskaekin kontaktuan jartea nahi du Eduk, nolabait eskerkeico. ms. 943 58 40 40.

• Enpresa edo bulegoren baten ordenadoreak aldatu badluzu eta zaharrekin zer egin ez badokizu, guk, BARRENen, hartuko ditugu. mr 943 74 41 12.

## Garajeak

• Garajea alokatertz dul pista beltzean. rd 943 74 00 70 (gauetz deitu).



40,4 et 10<sup>1</sup>

tyP

Olaso industriaidea. Olasope, 66 A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

## Cordon, Vilarchao, c.b.

### COIEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tei: 943 74 28 74-74 05 70

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Agurrak

- Zorionak loreri, igandean, hilaren 8an, 7 urte bete zituelako. "Bihurri" taldearen partez.

- Zorionak liwkiri, uztailearen 14an 13 urte beteko dituelako. Gora dinosaurioak! DBH1 ekoen partez.

- Zorionak Esther (potxa, piptio-ta birtuala, Esiferrirra), uztailearen 7an 13 urte bete zenituelako. Aupo San Fermin! Kontuz zezenekin, ia adarrak non sartzen dituen! Muxu bat. Lagunak.

sZorionak Marisabel anderetio-ori, igandean urteak bete zituelako. Ikastolako 1. mailakoen partez.

\*Zorionak **Nayeli Madrid Oterori, larunbatean, hilaren 14an**, urtetxo bat beteko duela-ko. Muxu handi bat zure amabi



- Zorionak **Andrea, hilaren 17an** 4 urte beteko dituzuiako. Muxu handi bot gurasoen, aiton-amonen eta bereziki, ahtzpa Sofiaren partez.



- \*Zorionak **Lore**, igandean 7 urte bete zenituelako. Etxekoen partez.



- \*Zorionak **Juanitol Honekin** barrik egiten duzun lana eskertu ezin badizugu ere, ez gara zutaz ahaztu. Segi urte askuan BARREnera jua-entorrixak eibxen. BARREneko lantaldea.txi Nuriaren partez.



- Zorionak **Neslorri, gaur 5 urte** bete dituelako. Muxu handi bat amama Marci eta osaba-izeben partez.



- Zorionak **Nerea Babarron**, hilaren 7an 4 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



- Zorionak **Andreari**, hilaren 11n 5 urte handi bete zuelako. Guraso, amama, Juan, Lurdes eta bereziki, ahizpa Mariaren partez. Zure eguna heldu da.



- \*Zorionak **Carmelo**, hilaren 16an urteak beteko dituzulako. Ondo pasa eguna emaztearen eta seme-alahen partez.



- ♦ Zo ionak **tia Aurori**. Muxu handi bat iloba Egoitzen eta Andrearen partez.



- Zorionak **Nerea**, hilaren 16an 17 urte beteko diluzulako. Muxu pila bat Garaziren eta familiakoen partez. Ongi pasa zure egunal

- Zorionak **Iraitzi, hilaren 17an** 5 urte beteko dituelako. Gurasoen, aiton-amonen eta bereziki, anaia Enekoen partez.

**IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.**

**-!• ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!**

**IZENA EMATEAN %oi OEKO BEHERAPENA**

9444

16



**ARRAÑAGA**  
O E S K O L

**Tel: 943 74 10 11**

## ROGAMAZIOA

1J ZTA, I ILA1/41.<

19 eguena  
21:30ean

DIPOSITIBA EMANALDIA

"NANGA PARBAT 93 ESPEZIOA"

*Pablo Barrenetxea*



TOLETXE

Pedro Muguruza 8, behea • Tel. 943 74 19 48

## Farmazia okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
14 Bidasolo*	Escala	ESCALA, RekoMe, 1 Soroluze Tel 943 75 16 38
15 Bidasolo*	Escola	FERNANDEZ, HerrFko enporonlzo 4, Garagarza, Tel. 943 75 61 42
16 Bidasolo	Bidasolo	<b>ZABALETA</b> , Kalebarren, 9 Saraluze. Tel: 943 75 13 84
17 Etxeberria (Sanla Ana karean)	Eixeberria	leguerdikozak arte)
18 Fernandez	Fernandez	
19 Bidasolo	Bidasolo	OKINDEGIA
20 Zabaleta	Zabaiela	15 igandea Idarraga

### 13 BARIXAKUA

8:00 SAN FERMINETAKO  
ENTZIERROA ZUZENEAN  
Kultur Etxean (pantaila handian)

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Miss Agente Especial"  
Plaza Handian

### 14 ZAPATUA

8:00 SAN FERMINETAKO  
ENTZIERROA ZUZENEAN  
Kultur Etxean (pantaila handian)

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Guztiak nahi zuten hilda"  
(Euskaraz)

### 19 EGUENA

10:39 IKUS-ENTZUNEZKOA  
"Munduari itzulia 17 urtetan,  
belauntzian eta familian"  
Hizlaria: Santiago Gonzalez  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: DEBABE euskaltegia  
Kutxaren bitartez

21:30 DIPOSITIBA EMANALDIA  
"Nanga Parbat 93 espezioa"  
Hizlaria: Pablo Barrenetxea  
Toletxe Tabernan

### 20 BARIXAKUA

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Torrente 2"



### "Miss Agente Especial"

Zuzendaria: Donald Fetricie.  
Antzezleak: Sandra Bullock, Michael Caine, Benjamin Bratt.  
Estatu Batuetako Miss Txapelketan atentatua egiteko asmoa azaldu du psikopata anker batek. Gaizkilea geldiarazteko FBIri bururatu zaion ideiarik onena hautagaien artean FBI-ko agente bat ezkutuan sartzea izan da. Aukeratu duten agentea Gracie Hart (Sandra Bullock) da. Miss izateko doaiak ditu baina bere portaera eta ohiturak ez dira egokienak. Miss gisa hartua izateko lan handia egin beharko du Graciek, baina izango du lagunduko dionik ere.

## DIAPOSITIBAK

"Nanga Parbat 93 espedizioa" Toletxen

1993an, Elgoibarko 2 mendizale (Aitor Esnaola eta Pablo Barrenetxea) eta Azpeitiko beste 2 mendizale Pakistanera joan ziren Nanga Parbat mendia (8,125 m.) igotzeko asmoarekin. 1993ko uztailaren 7an (San Fermin Egunean) Pablo Barrenetxeak, Jose Luis Clavel murtziarrarekin batera, gailurra zapaldu zuen. Pablok 24 urte zituen orduan, eta bera izan zen Himalaian 8.000 metrotik gorako mendi bat igotzea lortzen zuen lehen, eta oraingoz, azken elgoibartarra. Nanga Parbat mendira egin zuten espedizioan atera zituzten argazkien diapositibak ikusi nahi badituzte, Toletxe tabernan eskainiko dituzte uztailaren 19an, eguenean, gaueko 21:30ean hasita.

## IKUS-BITZUNI2KOAK

Munduari itzulia belauntzian

Santiago Gonzalez hondarribitarrak, bere emazteak eta bi semeek munduari itzulia eman zioten 17 urtetan. Munduko bazterrak ezagutu eta bidaiatzeko belauntzia erabili zuten. Urte hauetan guztietan bizi izandako abenturen berri izan nahi baduzue, Santiago Gonzalezek hitzaldia eskainiko du datorren barixakuan, hilaren 20an, Kultur Etxean. Debabe euskaltegiak Kutxaren bitartez antolatutako saioa da eta goizeko 10:30ean hasiko da.

## ZOIKETAK

Cuzcoko haurrei laguntzeko kanpaina

Elgoibarren MISQUI izeneko Gobernu Kanpoko Erakundea sortu berri da. Erakunde hau Cuzcoko haurrei laguntzeko asmotan sortu da. Lehenengo kanpaina txartelak saltzea izango da eta produktu sorta itzela zozketatuko da. Zozketan jarriko diren gauza guztiak dendarien eta tabernarien lankidetzari esker lortu ahal izango dituzte. Horrez gain, Txarriduna jatetxean eta Aubixan izango diren bi afari zozketatuko dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, Gemma Agirregomezkortarekin jar zaitezke harremanetan edo, bestela, dei egin ezazue 943 74 03 31 telefonora. Norbaitek diruz lagundu nahi badu, kontu zenbaki honetan sar daiteke dirulaguntza: Kutxa 2101 2036 61 0123228702,

## Ine

ARTELDEG

ELGOIBAR, Plaza Handia

iSs gen e specia

Barixakua: 22:30

"Guztiak nahi zuten hilda" (euskaraz)

Za atua: 2:30

IBAR nza a

"Sword Fish"

Barixakua: 19:30-22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Domekia: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: 19:30-22:15

Eguaztena: \*19:30-\*22:15

"Sin vergenza "

Barixakua: 19:30-22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Domekia: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: \*19:30-\*22:15

BERGARA, Novedades

"Et sastre de Panatra "

Barixakua: 22:30

Zapatua: 22:30

Domekia: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30

\*Ikuslearen eguna

s>>



## "Gaztiak nahi zuten hilda"

Zuzendaria: Nick Gomez.

Antzezleak: Neve Campbell, Danny DeVito, Jamie Lee Curtis.

Mona Dearly ez zen Verplanck herri txikiko bizilagunik maitatuena, inolaz ere. Hori dela eta, Monaren heriotzak ez dit dolu eta atsekaberik sortu. Alderantziz, Monak izan zuen auto istripua ez zela berezkoa izan argitzen denean herri guztia susmagarri bihurtuko da. Rash komisarioa (Danny DeVito) da ikerketa aurrera daratnana eta iana itxuragabe areagotuko zaio, susmagarrien kopurua egunetik egunera igoko baita.



ste honetako erretratua Jesus Mari Eturak laga digu. 1946. urte inguruan ateratakoa da, Lerungo zelai zaharrean (gaur egun desagertuta dago). Garai hartan koadrilen arteko txapelketa asko jokatzeko ziren herrian. Elgoibarrek beti izan du zaletasun handia horrelakoetarako. Erretratuan talde desberdinetako, "Pitusin", "Txalaparta" eta beste hainbat taldetako partaideak daude. Hauek dira argazkian agertzen direnak:

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Jesus Suarez, Jesus Mari Etura, Jaime Azpiazu (t), Jabi Arberas, Vicente Elgoro Iribe, Jose Ma Armendia eta Modesto Mujika (f).

Erdian: Juanito Betelu.

Behoko ilaran: Jesus Barrenetxea (t), Manolo Donamaria, Amadeo Aizpitarte, Joseba Argarate (gero boxeolaria izan zena), Jose Ma Barrenetxea eta Jose Ma Lizundia.

EIP 3	<b>ESKERTZA</b> 2001eko uztailaren 3an, 87 urte zituela hil zen <b>SOR M. LOURDES GARAI LIRRLITI</b> aren Santa Klara konbentuko ahizpadiak bihotzez <b>ESKERTZEN</b> ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.	nr C3 J
----------	--	------------

Crop 5 5 2 Op	<b>ESKERTZA</b> 2001eko uztailaren 4an, 40 urte zituela Mendaron hil zen <b>JOSE MARTIN EGAÑA GARATE</b> ren sendiak, bihotzez <b>ESKERTZEN</b> ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.	EsEi 5 uE
---------------------------	--	-----------------

ENPRESENTZAKO JATORDUAK

OSPAKIZUNAK

ezkontzak, jaunartzeak, bataioak,  
urtebetetzeak, despedidak eta banketeak.

Mendarozabal, s/n 20.850 MENDARO



*Ondo pasa Santanetan!*

**LUZAIDE jatetxea eta kafetegia** mendarozabal, z g ospitale pareani


**ZEZEN-BIDE**  
**AUTO-ESKOLA**

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak



*%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin*





# SANTA KLARA

## BISTA EDERREKO ETXEBIZITZA-ZONALDEA

Santa Klaran eraikitzena goaz:

**\*Etxebizitzak eta duplexak, trasteleku eta garajeekin.**

**Denak terraza handi eta eguzkitsuekin (hegoaldera begira).**

NEINOR Donostia  
Tolosa Hiribidea 21, 2. ezk.  
Tel. 943 31 75 11

NEINOR Elgoibar  
Santa Ana, 16 behea  
Tei. 943 74 73 16